


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Paranoiaren
hozberoa

Juan Izuzkiza

PAMIELA

128 orrialde

12 euro

Iazko Juan Zelaia
literatur saria

Egungo gizaki galduaren inguruko hausnarketa da Juan Izuzkiza bergararraren *Paranoiaren hozberoa* (*Nintendorena*) saiakera. Iazko Juan Zelaia lehiaketan irabazle izan zen, epaimahaiaren iritziz “egungo mundu mailako egoerari buruzko azterketa-begirada kritikoa, jakinduriaz, freskotasun eta ironiaz manera aski ausart eta originalean garatzen duelako”. Egilearen ustez, saiakera “oso ortodoxoa” ez denez, filosofian interes pixka bat duen edonori interesgarria gerta dakioko. Saioren aurreneko sei kapituluetan gizakiak, lehengo gizaki haixek bezalaxe, zoriontasuna lortu

nahian jarraitzen duela dio egileak; ondorengo kapituluetan berriz, mitoen inguruko hausnarketari heldu dio Juan Izuzkizak. ■

Euskal Idazleen
Elkarteak 25 urte

Duela berrogei urte Ermuan bildutako Idazleen Alkartearen lema, hau da: “Idazle guztiak baturik, euskara literarioaren batasunaren alde lan egin dezagun”. Ardatz horren inguruan sortu zen 1983an Euskal Idazleen Elkartea, euskal idazleen eskubide moral eta profesionalak defendatzeko. *Kalegats* aldizkariak bere azken zenbakian urteurren hori ardatz hartuta honako gaiak jorratu ditu: erakundearen hogeita bost urteko historia, egin dituen ekarpenak eta etorkizuneko erronkak, literatur ekoizpenaz elkartek antolatutako azken jardunaldien emaitzak, hogeita bost urteotan EIEk izandako lehendakari guztien gogorapena –berezik Andolin Eguzkitzari eskainitakoa–; eta Fito Rodriguez gaur egungo lehendakariaren *Zenbait kabala idazlearen efemerideaz* gogoeta. ■



Kalegats

Batzen artean

EUSKAL IDAZLEEN
ELKARTEA

20 orrialde

Literatura terminoen
hiztegia

Batzen artean

EUSKALTZAINDIA

798 orrialde

25 euro

Literaturaren teoriari, historiari
eta kritikari buruzko hiztegia

Juan Mari Lekuonari eskaini diote *Literatura Terminoen Hiztegia* lan hau burutu dutenek, bera izan baitzen Euskaltzaindiko literatura ikerketa batzordeburu 2005. urtean zendu zen arte. Hiztegia osatzen duten sarreren artean, literaturaren teoriari, historiari eta kritikari dagozkion kontzeptuak daude, hala nola erretorika eta metrika arloko termino teknikoak; molde metriko jakinak; literatur generoak eta azpigenoak; teknizismoak; aldi literario, belaunaldi edo eskola jakinak; mugimenduak eta abangoardiak; korrante kritiko nagusiak; termino soiltzat hartzen diren izen sintagma ihar-tuak –*in medias res*, *deus ex machina*...–, literatura sortzaileak zein eragileak: bertsolari, juglare, ditzolari, antzerkigile... Baita literaturarekin zerikusia duten beste hainbat gai ere. ■

Maite al daiteke
inoiz arerioa?

Jose Antonio Sarasolak euskara-tutako Frauke Nahrgang-en liburu sorta da *Futbolzale amorratuak*. Liburuxka bakoitzean eskola bateko bi futbol taldeetan aritzen diren neska-mutikoen gorabehera eta lehiak azaltzen dira. *Joko zikina* liburuan, betidanik garaile izandako taldeak –VfBek– areto-futboleko lehiaketa galtzeko arriskua ikusten du, hain zuzen ere Grün-Gelb taldeko murrizt horiek garaile irteteko aukera gehiegitxo dituztelako. Orduan, VfBko bati zera bururatuko zaio: Grün-Gelbeko atezainaren anaia txikiari xantaia egitea, bere anaiak VfBkoei golak sartzen uzteko. Izan ere, morroi horrek eskularru batzuk lapurtzen ikusi du txikia, eta osaba polizia duenez –mehatxatu du umea–, jaramonik egin ezean polizia horri lapurretaren berri emango dio eta kartzelara eramango dute. ■


Futbolzale
amorratuak:
Joko zikina

Frauke Nahrgang

IBAIZABAL

140 orrialde

9 euro



Oskar eta andre
arroxak

Eric-Emmanuel
Schmitt

ELKAR

96 orrialde

9,45 euro

Leuzemia duen mutikoak Jainkoari

Hamar urte besterik ez ditu Oskarrek leuzemia ezingo diotela sendatu jakin duenean. Ez diote zuzen esan, eta horrek eman dio amorraziorik handiena. Eskerrak emakume zahar bat ezagutzen duela, andre arroxak esaten dio berak. Noizean behin etortzen zaio bisitan, eta harekin lasai hitz egiten du gertatzen zaionaz, gurasoekin ez bezala. Emakume horrek gomendatuko dio, sinetsi ala ez, Jainkoari idazteko, eta egunero eskaera bat egiteko. Eta hala-xe egingo du mutikoak bizitzeko gelditzen zaizkion azken hamar egunetan, gogoeta egin eta sentitzen dituen guztiak garbi azalduz:

maite duen neskatoarekin izandako harremana, laguna zuen mutilarekin izandako haserre... ■

Animaliadetako saskibaloia- ren istorioa eta gaur egungo arauak

Animaliek gizakiok baino begirune gehiago dute beren artekoekin, Animaliadetan behintzat. Adibidez, saskibaloian jolasterakoan, posible da talde batean animalia altuak eta txikiak, meheak eta lodiak, ahulak eta indartsuak batera jardutea; animalia txikiak zilegi dute altuagoen gainera igotzea saskira iristeko; baina, saskian sartzen den animalia txikia ez da puntu bezala hartua izango; halere, saskira doan baloi bati eutsita dagoen animalia puntu gisa hartua izango da, baloia saskitik animalia baino lehenago ateratzen bada. ■

Bost gora

Victoria Pérez Escrivá

IBAIZABAL

38 orrialde / 6,88 euro



KARLOS DEL OLMO

«Liburu osoa alkoholez bustiriko pandemonium modukoa da»

Nola azalduko zenuke itzuli berri duzun lana?

Ezin ukatuzkoa da *Sumendiaren azpian* literatur eta itzulpen ezaugarrien aldetik obra berezi-berezia dela. Maisulana da, estiloa ia liburu osoan esanguratsua delako. Eleberria erritmo motelean hasten da eta horrexek atzera eragiten die hainbat irakurleri. Baina geldotasun horrek giro berezia eta xarma halako bat sortzen dizkio moteltasuna gainditzeko gauza denari. Nolanahi ere, eleberriak deskribaturiko parajeen bisitari guzti-guztiak harri eta zur geratu ohi dira deskribapenen zehaztasuna eta argitasuna direla bitarte.

1938an gertatzen da istorioa, eta garai hartako erreferentzia politiko ugari topa daitezke nobelan.

Lowry Defuntuen Egunean heldu omen zen Mexikora, 1936an, Espainian Gerra Zibila hasita zegoen garaian. Liburuan Defuntuen Egunak, Lehenengo Mundu Gerraren ondorioak, Espainiako Gerra Zibilak eta are Euskadik berak ere halako ehundura trinko eta sinboliko bat eratzen dute.

Alkoholagatik hil zen idazlea. *Delirium tremens*-aren atzaparretan dago eleberriko protagonista...

Malcolmek berak esanda badakigu *Sumendiaren azpian* Danteren *Jainko Antzertiko* Infernu eguneratu halako bat dela. Liburu osoa alkoholez bustiriko *pandemonium* moduko zer edo zer da. Nola idatz zezakeen bera ere alkoholiko zen idazleak halako eleberri konplexua protagonista alkoholikoaz? Aditu batzuen arabera, nobelaren kontzepzioa, asmoa bera, hain bihurri edo korapilatsua izateak lagundu zuen, hain zuzen ere, idazkuntza gorpuzten.




ELI GOROSTEGI

Eldarnio alkoholikoa sumendia den munduan

Hogeita sei urterekin eman zion hasiera Malcolm Lowryk (1909-1957) bere idazlanetan maisulana izatera iritsi zen *Sumendiaren azpian* nobelari. Orain Karlos del Omok euskaratu du liburua eta Alberdania eta Elkar argitaletxeen eskutik plazaratu da.

Hamar urte igaro zituen Lowryk liburua osatzen eta berridazten. Alkoholikoa zen, eta alkoholikoa aukeratu zuen hilketa baten gainean eratutako eleberri trinko bezain poetikorako. Izan ere, *Sumendiaren azpian* 1938ko Defuntuen Egunean, Mexikon, gertatutako hilketari buruzko istorioa da; mundua Lehenengo Gerrarekin astindua izan ondoren –bertan parte hartutakoak dira nobelako protagonista batzuk–, Espainiako Gerra Zibilaren gorabehera makurrei begira ari denean, eta Hitler indar geroz eta handiagoa



Sumendiaren
azpian

Malcolm Lowry

ALBERDANIA, ELKAR

552 orrialde

21 euro

hartzen ari denean. Britainia Handiak petrolio dela-eta, hautsiak ditu harreman diplomatikoak Mexikorekin. Alkoholikoa kontsul ingelesa da, dibortziatu behar izanak lur jota utzia. Nobelaren kontatzen diren azken hamabi ordutan, emaztea itzuliko zaio, anai iraultzailea alboan izango du, baina berak bere eldarnioan jarraituko du. ■

egileari galdezka